

*"Astigarragak pama izan du
sagardo onak izaten,
mutil koxkorra nitzan ni baña
goguan nola daukaten;
aste santuan elizkizunak,
gero sagardo edaten,
esan nai nuke ez dakitenak
orain jakindu dezaten*



Zamoa baserria "Sagardoaren Museoa"-ren egoltza izango da.

LA VOZ

Astigar Elkarteak bultzaturik

"Sagardoaren Museoa" Astigarragan eratuko da

Astigarraga herriak sagardoaren zerikusi handia duela esateak ez du inor harritzen. Mikel Arozamena bertsuak, informazio honi hainbat erreferentziak eman zizkion lekuko. Baina sagardoari eskainitako museo bat eratzea bestelako kontua da. Eta Astigarragako "Astigar" Elkarteak baskideak ausartu dira eta honelako proposamen bat aurkeztu diote Udalari. Haiekin mintzatu gara haien ideiak eta helburuak jakin nahian.

"Astigar Elkarteak proposamen hau aurkeztu dio Donostiako Udalari, euskal kulturak dituen zereginak suspertu eta indartu nahirik probetxuzkoa izan daitekeelakoan. Izan ere, sagardoaren inguruan dauden kultur gaiak oso nabariak dira euskaldunengan eta, noski, hori Astigarragan areagotzen da."

Joan den urteko jardunaldiak

Joan den urtean sagardoari buruz-

ko jardunaldi batzuek antolatutako zituzten Astigarrekoei eta hortik datorkigu museoaren ideia. "Guk, ekintzak egiterakoan, beti helburu batzuek markatzen ditugu. Ez dugu ekintza sinbri korik egin nahi edo gerorako eraginik izango ez dutenik. Horregatik, jardunaldi hauetan bi helburu planteatu genituen. Alde batetik pentsatzen genuen euskal kultura indartzeko eta berpizteko probetxugarri izan zitekeela. Argi dago euskal kulturak eta sagardoak duten zerikusia eta are gehiago inguru hauetan. Bestalde, Astigarragan dagoen sagardoarekiko kezka hori nolabait gauzatu, plasmatu behar genuen. Horretan datza museoaren ideia."

Pasa den martxoan izandako jardunaldi hauek oihartzun polita jaso zuten herri-erengandik. Herriko eskolatan bertso paper eta idatz lan lehiaketak antolatu ziren. Hitzaldi ziklo mamitsu bat garatu zen, beti sagardoaren inguruan. Gai hauetan oso jende arituak sagardoaren historia, gaurko egoera, landaketa, sagar-

dogintza... eta beste zenbait gaia aztertutako zuten. Jose Uribe, Busca Isusi, Larrañaga eta beste batzuek Astigarrekoei aretoetik pasatu ziren.

Diapositibua eta filmak, sagardogintza landaketa elizaurrean... denetarik ezan zen hor. Eta, noski, jardunaldi hauei amaiera emateko herri festa: txalaparta, bertsolariak, sagardogile zaharrei omenalditxoak...

Bertan ere, mahainguru bat eratu zen. Donostiako Udalaren partetik Labaien alkatea eta zenbait zinegotzi azaldu ziren. Foru Aldunditik ere baten bat bidali zuten. Denen artean museoaz hitzegin zuten eta, hasiera batean behintzat, ontzat eman zen proposamena. Hortik aurrera, ideia hau burutzeko ardura Astigar Elkarteak daramate.

Zer-nolako museo behar da

"Gure aldetik, museorako lekua bilatu baino lehen, egokiago iruditu zitzaigun zer-nolako museo nahi genuen planteatzea. Hemen bi per-

tsiona talde bereizten ditugu: herriko kultur taldeetako jendea eta sagardogileak. Museoa bi talde hauen ardurapean egon beharko luke. Bere aldetik, erakunde ofizialek, Donostiako Udalak zehatzkiago, babestu beharko lukete proiektua, ekipamendu eta mantenimendu gastuak ordainduz."

Museo honetan sagardogintzan erabilitako tresneria erakutsiko da. Aldi berean, argazki zahar eta koardroekin hornituko da.

Landu behar den beste arlo bat bibliografikoa izango litzateke, hots, liburu, aldizkari, artikulua bilduz. Sagardo motak, botila ezberdinak eta abar luze batek museo hau gauzatu dezake.

Derrigorrezkoa da, noski, museo honetan erakutsi dadila sagardoaren egitearen prozesu osoa, hots, sagar biltzetik kupelatzeraino. Landaketak nola egin behar diren eta horrelako gaiak ere aztertuko lirateke.


"Baina guk ez dugu nahi museo hau erakustoki hutsa izatea. Eta ha-

lako bizitasun bat emateko asmoz hau proposatzen dugu: sagardogintzari buruzko informazio bulegoa irakitzeko, bertan sagardogileek elkarrekin finkatzea, lokala eta guztiz, eta hitzaldi aretoa."

Antza denez, Astigarragako sagardoaren museoaren kontua bide onetik doa. Dena dela, horrela ez balitz, "gure partetik eta proiektu osoa gauzatu arte, beste ekintza batzuek egin go ditugu herri mailan lortu nahi dugun helburuaren ildotik."


Eta erreportai honi bertsokina hasiera eman badiogu ere, bertsokina ere amaituko dugu:

"Euskaldunentzat ederrik bada au da sagardotegiya Astigarragan ugari bada naiz izan erri txikiya; bide bakar bat auxe degu-ta antxiñakuak utziya, Euskalerriko eraria da sagardo maitagarriya."



LA VOZ

Museoa ez da erakustoki hutsa izango.



Sagardoari eskainitako muntamentu bat eraiki nahi dute. Hona hemen bozeto bat.